# Elorrioko Gobernu Plana 2023-27

Danona.

Elorrioko udala

## GIZARTE SAILA

- **Herrian eguneko zentro bat lortu arte lanean jarraitu.**
Seguir trabajando hasta conseguir un centro de día en el municipio.

- **Zahartze aktiboaren sustapena, *Herri Lagunkoia, Belaunaldien artean, Nagusien jantokiak* eta antzeko programak mantenduz eta bultzatuz.**
Fomento del envejecimiento activo mediante el mantenimiento e impulso de programas como *Elorrio Pueblo Amigable, Programa Intergeneracional y Comedor de mayores.*

- **Gura gabeko bakardadean bizi direnentzat Herrizaintza programa sendotu.**
Consolidar el programa Herrizaintza para personas en soledad no deseada

- **Zaintzaile guztien (soldatapekoak zein ordaindugabekoak) formakuntza saretu eta ahalduntzea bultzatu.**
Impulsar la formación, la inserción y el empoderamiento de todas las personas cuidadoras, tanto asalariadas como no remuneradas.

- **Enplegurako Orientazio zerbitzua mantendu.**
Mantener el servicio de Orientación para el empleo.

- **Emakume migratuak alfabetatzeko eta ahalduntzeko programarekin jarraitu.**
Continuar con el programa de alfabetización y empoderamiento de las mujeres migradas.

- **Bitartekaritza zerbitzua martxan jarri.**
Puesta en marcha del Servicio de mediación.

- **Kultura-aniztasunean bizikidetza positiboa izateko Elorrioko lehen Plana onartu.**
Aprobar el primer Plan de convivencia positiva en la diversidad cultural de Elorrio.

- **Eraso arrazisten eta xenofoboen kontrako Elorrioko lehen protokoloa onartu.**
Aprobar el primer protocolo de Elorrio contra las agresiones racistas y xenófobas

- **Elorrioko merkatariekin lanean jarraitu, tokiko merkataritza sustatzeko, besteak beste, erosketa bonuen kanpainak bultzatuz eta negozio berriak zabaltzeko diru-laguntzak mantenduz.**
Seguir trabajando con los y las comerciantes de Elorrio para fomentar el comercio local, impulsando, entre otras medidas, campañas de bonos de compra y manteniendo las subvenciones para la apertura de nuevos negocios.

- **Memoria Historikoan sakontzen jarraitu, elkarte memorialisten laguntzarekin.**
Seguir profundizando en la Memoria Histórica con la colaboración de las asociaciones memorialistas.

## PARTEHARTZEA eta GOBERNU IREKIA

- **Herri kontseilua sortu.**
Creación del Consejo Popular.

- **Aurrekontu partehartzaileak finkatu.**
Consolidación de los presupuestos participativos.

- **Udal tramiteak online modalitatean bultzatu.**
Impulsar los trámites municipales en la modalidad online.

- **"Herritarren kutxazain bizkorra" jarri Udalean tramiteak errazteko.**
Instalación de un "Cajero de uso rápido" en el Ayuntamiento para facilitar los trámites.

- **Udal komunikazio sistemak hobetzen jarraitu herritarrak ahalik eta ondoen informatuta mantentzeko.**
Seguir mejorando los sistemas de comunicación municipales para mantener a la ciudadanía lo mejor informada posible.

## HEZKUNTZA

- **Eskola publikoa: Haurreskola berritua ireki eta Eskolako patioaren eraldaketaren azken fasea burutu.**
Escuela pública: apertura de la Haurreskola renovada y ejecución de la fase final de la transformación del patio de la Escuela.

- **Uztaila Oparo programa indartu.** Reforzar el programa Uztaila Oparo.
- **Ikastetxeetan hezkidetza-mahaia bultzatzen jarraitu.** Seguir impulsando la mesa de coeducación en los centros.
- **Ikastetxeen eta udalerrian dauden eragileen arteko lankidetza sustatu, elkarguneak sortuz.** Fomentar la colaboración entre los centros educativos y los agentes existentes en el municipio mediante la creación de puntos de encuentro.
- ***Lau eskola* proiektua biziberritu.** Revitalizar el proyecto *Lau eskola*.
- ***Hazigunea* proiektuak indarrean jarraituko du.** El proyecto *Hazigunea* seguirá vigente.
- ***Elorrio hezitzailea* proiektuak aurrera jarraituko du.** Continuidad del proyecto *Elorrio hezitzailea.*
- **Musika Eskolarekin lankidetzan jarraitu, kalitatezko musika hezkuntza bermatzeko.** Seguir colaborando con la Escuela de Música para seguir garantizando una educación musical de calidad.
- **Ikastetxeetako egunerokoan euskara erabiltzeko zailtasunak dituzten ikasleak laguntzen jarraitu, *Errefortzu-saioen* bidez.** Seguir ayudando al alumnado con dificultades para utilizar el euskera en el día a día de los centros a través de *sesiones de refuerzo*.

## BERDINTASUNA

- **Emakumeen ahalduntzerako ekipamendu propioak izatea.** Disponer de equipamientos propios para el empoderamiento de las mujeres.
- **Berdintasunerako Udal Ordenantza onartu.** Aprobación de la Ordenanza Municipal de Igualdad.
- **V. Plana garatu, tresna praktiko eta aurrerakoi gisa.** Desarrollo del V Plan como herramienta práctica y progresista.
- **Udal sailen arteko aliantza eta elkarlanaren bidez aurrera egin genero ikuspegia barne mailan txertatzeko.** Avanzar a través de la alianza y colaboración entre los departamentos municipales en la integración de la perspectiva de género a nivel interno.
- **Hainbat programa sendotu, besteak beste, egoera zailean aurkitzen diren emakumeen Sostengu taldea, Zaintza barik bizitzarik ez, Etxeko langileentzako eta kontratatzaileentzako aholkularitza zerbitzua eta Jabekuntza Eskolak.** Consolidación de programas como el Grupo de Apoyo a mujeres en situación de dificultad, No hay vida sin cuidados, Servicio de asesoramiento a empleadas de hogar y contratantes, Escuela de Empoderamiento.
- **Indarkeria matxista jaso duten emakumeen arreta kalitatezkoa izan dadila bermatu eta baliabide desberdinak eskaintzen jarraitu.** Garantizar la calidad de la atención a las mujeres víctimas de violencia machista y seguir ofreciendo diferentes recursos.
- **Udalaren, mugimendu feministen eta emakume elkarteen arteko lankidetzarekin jarraitu.** Continuar con la colaboración entre el Ayuntamiento, el movimiento feminista y las asociaciones de mujeres.
- **Udalaz gaindiko elkarguneekin elkarlanean jarraitu.** Seguir colaborando con organismos de encuentro supramunicipales.
- **Durangaldeko protokoloaren parte izaten jarraitu.** Seguir formando parte del protocolo del Duranguesado.

## TURISMOA

- **Elkarbizitza eta iraukortasuna sustatzen dituen turismo eredua bultzatu.**
  Impulsar un modelo turístico que fomente la convivencia y la sostenibilidad.
- **Eskaintza turistiko berriak sortu.**
  Creación de nuevas ofertas turísticas.
- **Eskualdea ardatz hartuta beste erakundeekin lankidetza erraztu.**
  Tomando a la comarca como eje, facilitar la colaboración con otras instituciones .
- **Digitalizazioan aurrerapausuak eman.**
  Avanzar en la digitalización.

## ONDAREA

- **Argiñetako Musealizazioa gauzatu.**
  Llevar a cabo la Musealización de Argiñeta.
- **Udalaren ondare diren elementuen mantenua egin.**
  Mantenimiento de elementos patrimoniales municipales.
- **Ondare inmateriala balorean jarri ekintza desberdinen bidez (argitalpenak, erakusketak…).**
  Poner en valor el patrimonio inmaterial a través de diferentes acciones (publicaciones, exposiciones…).

## KULTURA

- **Elorrioko kultur eragileekin elkarlana berraktibatu.**
  Reactivar la colaboración con los agentes culturales de Elorrio.
- **Kultur ekipamenduetan mantentze eta berritze lanak burutu (Iturri, Arriola).**
  Mantenimiento y renovación de equipamientos culturales (Iturri, Arriola).
- **Herriak bizi duen aniztasun kulturala ehuntzeko ekimenak bultzatu.**
  Impulsar iniciativas para tejer la diversidad cultural que tiene el pueblo.
- **Euskal kulturgintzaren zirkuitu egonkorra sustatu, Geuretik sortuak egitasmoan parte hartuz.**
  Promover un circuito estable de la actividad cultural vasca, participando en el proyecto Geuretik sortuak.
- **Sormen prestakuntza eta sorkuntza sustatzeko programak bultzatu (Literatura, idazketa, zinema, bideoa, argazkia, dantza, musika eta artea).**
  Impulsar programas de formación y promoción de la creatividad (Literatura, escritura, cine, vídeo, fotografía, danza, música y arte).
- **Herriko sortzaile berrien lanak ikustarazteko espazioak, erakusketak, elkarrizketak sustatu.**
  Promover espacios, exposiciones, diálogos para visibilizar las obras de los nuevos creadores locales.
- **Herrian eta auzoetan jai eredu herrikoi, euskaldun, parekide eta parte hartzaileak bultzatzen jarraitu.**
  Seguir impulsando en el pueblo y en los barrios modelos festivos populares, euskaldunes, paritarios y participativos.
- **Askotariko ikusleentzat kultur programa aberatsa eskaintzen jarraitu.**
  Seguir ofreciendo un programa cultural rico para un público diverso.

## EUSKARA

- **Euskararen erabilera bermatu Udalak lagundutako jarduereten: kirolean, kulturan edota aisian.**
  Garantizar el uso del euskera en las actividades apoyadas por el Ayuntamiento: en el deporte, la cultura o el ocio.
- **Jendaurreko ekitaldietan euskararen erabilera bermatu, hiztun elebakarren ulermena oztopatu gabe.**
  Garantizar el uso del euskera en los actos públicos, sin entorpecer la comprensión de los hablantes monolingües.
- **Elorrion euskararen arnasguneak identifikatu eta sustatu, urtez urte egingo diren euskararen aldeko**

**ekintzetan (Korrika, Haurren aurrean helduak heldu, Barra-barra eta Euskaraldia).**
Identificar y promover espacios de respiro para el euskera en las actividades que se realizan año tras año (Korrika, Haurren aurrean helduak heldu, Barra-barra y Euskaraldia).

- **Etorri berriek bertoko hizkuntza kudeatzen laguntzeko plana garatu.**
Desarrollar un plan de apoyo para que los y las recién llegadas adquieran nuestra lengua.

- **Herritarrek eremu administratiboetan euskaraz egiteko bitartekoak erraztu (Udala, Osakidetza, Udaltzaina…) eta betetzen ez diren eremuetan eragin.**
Facilitar los medios para que la ciudadanía pueda expresarse en euskera en los ámbitos administrativos (Ayuntamiento, Osakidetza, Policía Municipal...) e incidir en los ámbitos en los que no se cumplen.

- **Euskara ikasten dabiltzanei ikusgarritasuna eta balioa eman eta laguntza ekonomikoa ematen jarraitu.**
Dar visibilidad y valor a las personas que están aprendiendo euskera y seguir apoyándoles económicamente.

- **Gazte eta umeen hizkuntza ohituretan eragiten duten kolektiboekin transmisioa eta ohituren lanketa egin, hezkuntza formal, ez-formal eta informaletik.**
Transmitir y trabajar con los colectivos que influyen en los hábitos lingüísticos de jóvenes y niños y niñas, desde la educación formal, no formal e informal.

- **Herriko ekimen gozagarrietan euskara hizkuntza ardatz izatea lehenetsi (24 ordu digitalean, kontzertuetan, jaietan, barraketan, etab).**
Priorizar que el euskera sea el eje de las actividades populares (24 horas en digital, conciertos, fiestas, barracas, etc.).

- **Euskarari buruzko ordenantza onartu.**
Aprobación de la ordenanza sobre el euskera.

## INGURUMENA

- **Elorrioko Energia Plan Integrala martxan jarri.**
Puesta en marcha del Plan Integral de Energía de Elorrio.

- **Bide publikoen ordenantza onartu.**
Aprobación de la ordenanza de vías públicas

- **Baso eta lur publikoen baso-kudeaketa egin.**
Gestión forestal de bosques y terrenos públicos.

- **Eraikin publikoetan energia berriztagarria sortzen duten sistemak jarri eta energia efizientzia hobetu (besteak beste, LED argiteriaren instalazioaz jarraituz).**
Implantación de sistemas generadores de energía renovable en edificios públicos y mejora de la eficiencia energética (continuando con la instalación de alumbrado LED, entre otras medidas).

- **Herriko elkarteekin lankidetza bultzatu: erreken garbiketa bultzatuz, basogintza sustatuz…**
Impulsar la colaboración con las asociaciones locales: impulsando la limpieza de los arroyos, fomentando la silvicultura...

- **Elorrioko Energia Berriztagarrien Komunitatearekin lankidetzan jarraitu, baliabideak eskainiz eta energia estrategia konpartituz.**
Seguir colaborando con la Comunidad de Energías Renovables de Elorrio aportando recursos y compartiendo estrategia energética.

- **Herritarrek energia kontsumoa murrizteko hartzen dituzten neurriak hobari bidez lagundu.**
Apoyar con bonificaciones las medidas adoptadas por la ciudadanía para reducir el consumo energético.

- **Basoa publikoak erosten eta bertako espezieen landaketak egiten jarraitu.**
Dar continuidad a la compra de montes y a las plantaciones de especies autóctonas.

- **Enpresekin aire zein zarata kutsaduraren inguruan egindako lanketarekin jarraitu: neurketak, auzokide eta enpresekin interlokuzioa, neurrien jarraipena…**
  Continuar con la labor realizada con las empresas en materia de contaminación del aire y acústica: mediciones, interlocución con el vecindario y empresas, seguimiento de medidas...
- **Hondakinak murrizteko neurriak ezartzen eta kontzientziazio-kanpainak bultzatzen jarraitu.**
  Seguir implementando medidas para reducir los residuos y seguir impulsando campañas de concienciación.
- **Katuen koloniak kontrolatzeko neurriekin jarraitu.**
  Continuar con las medidas de control de las colonias de gatos.

## LANDA GARAPENA

- **Auzo kontseiluaren bitartez auzoen premiak kudeatu .**
  Gestionar las necesidades de los barrios a través del Consejo vecinal.
- **Natur-bide sarea osatu eta hobetu, auzoen arteko loturak eta aisialdirako ibilbideak hobetuz.**
  Completar y mejorar la red de caminos naturales, mejorando las conexiones entre barrios y los itinerarios de ocio.
- **Aldapen ur-sare publikoa sartu.**
  Introducir la red pública de agua en Aldape.
- **Erabilera anitzeko gune bat eraiki San Agustinen.**
  Construir un espacio polivalente en San Agustín.
- **Lehen sektorea bultzatu, besteak beste, sektoreari diru laguntzak eskainiz, azokak bultzatuz…**
  Impulsar el sector primario, entre otras medidas, ofreciendo subvenciones al sector, impulsando ferias...
- **San Lorentzoko bolatokia konpondu.**
  Arreglar la bolera de San Lorenzo.
- **Mendrakako errepidearen konponketaren bigarren fasea burutu.**
  Ejecución de la segunda fase de la reparación de la carretera de Mendraka.

## HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

- **Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) berrikuspena garatu.**
  Desarrollo de la revisión del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU).
- **Montorra eremua garatu 140 etxebizitza eraikitzeko.**
  Desarrollo del área Montorra para la construcción de 140 viviendas.
- **San Pio kalearen birgaitze integrala.**
  Rehabilitación integral de la calle San Pío.
- **Kurutziagako biribilgunea egin.**
  Construcción de la rotonda de Kurutziaga.
- **Urkizuaran kaleko obrak burutu.**
  Ejecución de las obras de la calle Urkizuaran.
- **Goietan, alokairu sozialera bideratutako 6 etxebizitza egin.**
  Construir 6 viviendas destinadas al alquiler social en Goieta.
- **Santa Ana kantoia konpondu eta zabaldu.**
  Reparación y apertura del cantón de Santa Ana.
- **San Agustin: biribilgunera doan paseoa konpondu eta elizaren aurreko espazioa egokitu.**
  San Agustín: reparación del paseo a la rotonda y adecuación del espacio frente a la iglesia.
- **Hiri-altzarien mantenua (bankuak etab): urteko aurrekontu-partida bat bideratu hiri-altzariak mantentzeko, aurreikusitako plangintza oinarri hartuta eta beharrizanak kontuan hartuta.**
  Mantenimiento del mobiliario urbano (bancos, etc.): destinar una partida presupuestaria anual al mantenimiento del mobiliario urbano en base a la planificación prevista, teniendo en cuenta las necesidades.
- **Hilerria: eraberritze-obrak egin eta hildakoen errautsentzako espazio irekia sortu.**

Cementerio: realizar obras de reforma y crear un espacio abierto para las cenizas de las personas difuntas.

- **Etxe hutsen alokairua sustatzeko kanpainak burutu.**
  Campañas para fomentar el alquiler de viviendas vacías.
- **Gune industrial zaharkituak biziberritu, beharrezkoak diren planak onartu eta balizko gune berriak garatu.**
  Revitalizar espacios industriales obsoletos, aprobar planes necesarios y desarrollar posibles nuevos espacios.
- **Herritarrei babesa ematen jarraitu AHTren obrek sortzen dituzten arazoen aurrean, eta horien kontrol zorrotza egin, identifikatzen diren irregulartasunak dagokion lekuan salatuz.**
  Continuar dando apoyo a la ciudadanía frente a los problemas que plantean las obras del TAV, y hacer un control exhaustivo, denunciando las irregularidades que se identifiquen en el lugar correspondiente.
- **Herriko argiteria hobetu.**
  Mejora del alumbrado público.
- **Erreka kalea -Kanpokale- San Pio eremuaren trafikoa kontrolatzeko sistema ezarri.**
  Implantación del sistema de control de tráfico de la calles Erreka – Kanpokale - San Pío.

## GAZTERIA

- **Gazteen emantzipazioa errazteko ekimenak zuzendu.**
  Dirigir iniciativas para facilitar la emancipación de las personas jóvenes.
- **Gazteen artean osasun mentala zaintzeko ekimenak abian jarri.**
  Poner en marcha iniciativas para el cuidado de la salud mental entre la juventud.
- **Gazteentzako lan-eskubideen gida argitaratu.**
  Edición de la guía de derechos laborales para jóvenes.
- **Unibertsitaterako garraiorako diru laguntza mantendu.**
  Mantener la subvención al transporte universitario.
- **Gazteen parte-hartzea sustatzeko ekintzak sustatu.**
  Implementar acciones dirigidas a fomentar la participación de la juventud.

## KIROLA

- **Kiroldegiaren egungo azpiegitura birgaitu eta progresiboki handitu ondoko eremuaz baliatuz.**
  Rehabilitación de la infraestructura actual del polideportivo y ampliación progresiva aprovechando la zona contigua.
- **Bizitza osoan zehar kirola egiteko aukera eta bitartekoak eskaini.**
  Ofrecer la posibilidad y los medios para hacer deporte a lo largo de toda la vida.
- **Berdintasunean eta jarduera inklusiboan oinarritutako espazio partekatuak eta seguruak sortu ohiko jardueretan.**
  Crear espacios compartidos y seguros en la práctica habitual de la actividad deportiva para una actividad física inclusiva e igualitaria.
- **Kirol-gune eta azpiegiturak mantentzearen eta etengabe hobetzearen bidez, kalitatezko kirola egin ahal izatea bermatu.**
  Posibilitar la práctica deportiva de calidad mediante el mantenimiento y mejora continua de espacios e infraestructuras deportivas.
- **Errugbi zelaiko instalazioak hobetu.**
  Mejora de las instalaciones del campo de rugby.
- **Kanpoko igerilekuetako kudeaketan hobekuntza martxan jarri.**
  Puesta en marcha de la mejora en la gestión de las piscinas exteriores.
- **Kiroldegiko kudeaketaren sistema informatikoa berritu.**
  Renovar el sistema informático de gestión del polideportivo.

**Gobernu taldeak DANONA Gobernu Plan berriarekin ekingo dio legegintzaldiari, non herritarrak, danak izango diren islatuta, zehatz eta argi, ehun eta hiru neurrietako helburua herritarrak direlako.**

**ELORRIO DANONA izan dadin, duinago, osoago, sentiberago eta sustengarriago egin nahian zehaztu dira ekintzak eta proiektuak. Herritarren ongizatea eta bizi kalitatea helburu dituzten neurriak dira, zerbitzu publikoen bultzadaz, gizabanakoak zein kolektiboak kontuan hartuz, baina herritartasuna eta izaera komunitarioa lantzea ere xede dutenak, proiektu komunitarioak oinarrizko babes baitira bizitzari heltzeko, krisi egoeretan aurre egiteko, bizipozak partekatzeko, nortasunaz jabetzeko, bizi garen herriaz gozatzeko baita goza dezaten uzteko ere.**

**Bitartekoak eta baliabideak jarriko ditu Gobernu planak urtero, jarduerak garatzeko aukera emateko zein proiektuak aztertzen joateko, hala behar denean, egokitzapenak egiteko, non xede beti: danona izatea bizi dugun Elorrio.**

**Gobernu Planaren egitasmoa egingarria, zehatza, eta neurgarria da. Pertsonak dira ardatz eta pertsonak eurak izango dira protagonista; gure helburua, Elorrio DANONA izatea.**

El equipo de gobierno afronta la legislatura con el Plan de Gobierno DANONA, DE TODAS Y DE TODOS, un plan concreto y claro, donde cada cual verá su reflejo, pues el objetivo de las ciento tres medidas que dispone será siempre la ciudadanía.

Para que Elorrio sea un pueblo "de todas y de todos", se han definido acciones y proyectos con vocación de hacer un municipio digno, íntegro, sensible y sostenible. Se trata de medidas que persiguen el bienestar y la calidad de vida de la ciudadanía a través del impulso de los servicios públicos, tanto individuales como colectivos, y del desarrollo de su carácter comunitario, ya que los proyectos comunitarios son básicos para abordar la vida y afrontar las situaciones de crisis, compartir las alegrías, tomar conciencia de nuestra identidad, disfrutar y dejar disfrutar del pueblo en el que vivimos.

Cada año se aportarán medios y recursos para ir desarrollando este Plan y se convocarán encuentros para ir analizando los proyectos, y en su caso, plantear adaptaciones, con el objetivo que el Elorrio DE TODAS Y DE TODOS sea el pueblo en el que vivimos.

El Plan de Gobierno que se presenta es factible, concreto y medible. Las personas son su eje y las propias personas serán protagonistas; nuestro objetivo, que Elorrio sea DE TODAS Y DE TODOS.